



Auditoretza Programa

EKOP 2026-2030

2026ko urtarrila, 1. bertsioa

EDUKIEN AURKIBIDEA

EDUKIEN AURKIBIDEA	2
1.-Sarrera	3
2.- Auditoretza-programaren helburua	3
3.-Auditoretza-eredua	4
4.- Erakunde ikuskatzailea	4
5.- Kontuan hartutako araudia	4
6.-PNCOCA 2026-2030.	5
7.- EKOP 2026-2030.	7
7.1. Agintaritzaren eskudunak	7
7.2. Euskadin kontrol ofizialeko programak betearaztea	7
8.- Arriskuaren analisia	12
8.1. Arriskua ebaluatzeko irizpideak	12
8.2. Irizpideen haztapena	13
8.3. Arrisku-mailaren kalkulua	14
9.- Auditoretza-egitura	14
9.1. Auditoretza-sistema	14
9.2. Auditoretzen irismena	14
9.3. Auditoretzak gauzatzeko ezarritako lehentasuna	14
10.- Auditoretzen egutegia	17
11.- Auditoretza-prozesua eta -irizpideak	18
11.1.- UNE-EN ISO 19011 arauaren aplikazioa, segimendua eta berrikuspena	18
11.2.- Betekizunak eta eskakizunak	20
11.3.- Auditoretza-prozedurak	20
12.- Segimendua eta berrikuspena	25
12.1.- Azterketa independentea	25
12.2.- Ofiziozko segimendua eta berrikuspena	26
13.- Gardentasuna	26

1.-Sarrera

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduak, elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoak, honako hau ezartzen du 6. artikuluan: «Agintaritza eskudunek barne-auditoretzak egingo dituzte edo halakoak egiteko agindua emango dute, eta, haien emaitzak kontuan hartuta, neurri egokiak hartuko dituzte. Auditoretza horiei azterketa independente bat egingo zaie, eta gardentasunez egingo dira».

Auditoretzak egiteko irizpideei jarraituz, beharrezkotzat jotzen da ikuspegi sistematikoa auditoretza horien plangintzan, gauzatzean, haien jarraipenean eta kudeaketan. Irizpide horiek dokumentu honetan jasota daude: «Batzardearen komunikazioa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua arabera (2021/C 66/02)». 5.1 apartatuaren laugarren gidoian auditoretza-prozesuari buruz adierazten den bezala, auditoretza-programa bat ezarri behar da, zeinak behar bezala barne hartuko baititu 2017/625 (EB) Erregelamenduari dagozkion jarduera-eremu garrantzitsu guztiak eta agintaritza eskudun guztiak, arriskuen arabera maiztasun egokiarekin eta gehienez ere bost urteko aldian.

«Batzardearen komunikazioa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua arabera (2021/C 66/02)» izeneko dokumentuak jasotzen duen definizioaren arabera, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 3. artikuluari eta 178/2002 (EE) Erregelamenduaren 2. eta 3. artikuluei dagokienez, hau hartzen da «auditoretza-programatzat»: Aldi jakin baterako planifikatutako eta helburu espezifiko batera bideratutako auditoretza bat edo batzuen multzoa. Horretan oinarrituta, auditoretza-programa hau honako atal hauetan egituratzen da:

- Helburua.
- Auditoretza-eredua.
- Programa egiteko kontuan hartu den araudia.
- PNCOCA 2026-2030.
- EKOP 2026-2030.
- Arriskuen analisia.
- Auditoretzaren egitura.
- Auditoretzen egutegia.
- Auditoretza-prozesua eta aplikatu beharreko irizpideak.
- Jarraipena eta berrikuspena
- Gardentasuna.

2.- Auditoretza-programaren helburua

Auditoretza-programa honen helburu nagusia da egiaztatzea ea egokiak diren eta modu eraginkorrean aplikatzen diren elikagaiei eta pentsuei buruzko legeria bermatzeko kontrol ofizialak eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta produktu fitosanitarioei buruzko arauak, Euskadiko Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plana (EKOP 2026-2030) betetzea barne.

3.-Auditoretza-eredua

Euskal Autonomia Erkidegoan, barne-auditoretzako eredu bat aplikatuko da, nekazaritzaren arloko agintaritza eskudunen izenean HAZI Fundazioak garatua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren, foru-administrazioen eta haien mendeko erakundeen bitarteko propio instrumentala eta zerbitzu teknikoa baita.

4.- Erakunde ikuskatzailea

«Batzordearen komunikazioa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua araberako (2021/C 66/02)» izeneko dokumentuak erakunde ikuskatzailea honela definitzen du: auditoretza-prozesua garatzen duen organismoa, zeina barne nahiz kanpo entitatea izan daitekeen. Organismo ikuskatzailea programaren barruan jasotako auditoretzak egiteaz arduratzen da, eta auditoretzak egiteko ahal egokia esleitzen duen agindu argia dokumentu bidez jasota eduki beharko du.

Auditoretzak egiteko eskumena duten pertsonak osatuko dute organismo hori. Era berean, organismo ikuskatzaile horri atxikitako langileek auditoretza-taldeak osatuko dituzte, eta talde horiek arduratuko dira auditoretzak egiteaz, aditu teknikoekin laguntzarekin, behar izanez gero. Talde horiek auditore bat edo batzuk edukiko dituzte, beren gaitasun edo ezaugarri pertsonaletan oinarrituta.

Auditoreak hautatzeko eskumenak eta irizpideak «Batzordearen komunikazioa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua araberako (2021/C 66/02)» izeneko dokumentuaren orientabideen arabera definituko dira, honako hauek aintzat hartuta:

- Ezagutza eta gaitasun orokorrak.
- Auditoretzako printzipioak, prozedurak eta teknikak.
- Antolaketa- eta kudeaketa-gaitasunak.
- Gaitasun eta ezagutza espezifikokoak.
- Ezaugarri pertsonalak.
- Ikasketak
- Lan-esperientzia.
- Auditore gisa prestakuntza eta esperientzia izatea.

Organismo ikuskatzaileak independentea izan beharko du ikuskatutako jarduerarekiko, eta ezin da partziala izan edo interes-gatazkan egon; ildo beretik, ezin du jasan auditoretza-prozesuaren emaitza edo ondorioetan eragin dezakeen inolako presiorik.

Egoera jakin batzuetan independentzia osoa edo erabateko ezinezkoa da, eta auditoretzak modu zuzen, objektibo eta inpartzialean egin direla ziurtatzeko adinako independentzia-maila behar da.

5.- Kontuan hartutako araudia

- Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamendua, elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren eta animalien osasun eta ongizateari, landare-osasunari eta

produktu fitosanitarioei buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoa.

- Batzordearen komunikazioa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua arabera (2021/C 66/02).
- 178/2002 (EE) Erregelamendua, Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, zeinaren bidez elikagaiei buruzko legeriaren betekizun orokorrak ezarri, Elikagaien Segurtasunerako Europako Agintaritza sortu eta elikagaien segurtasunari buruzko prozedurak finkatzen baitira.
- 17/2008 Legea, abenduaren 23koa, Nekazaritza eta Elikagaigintza Politikari buruzkoa.
- 17/2011 Legea, uztailaren 5koa, elikadura-segurtasunari eta nutrizioari buruzkoa.

Atal honetan ez da aipatzen Europar Batasuneko, estatuko, autonomia mailako eta foru-eremuko araudi aplikagarri espezifikoak, zerrenda luzeegia izango bailitzakete.

Gainera, lege-araudia izan ez arren, auditoretzak garatzeko erreferentzia-esparrua osatzen duten zenbait dokumentu daude:

- UNE-EN ISO 9000:2015 araua (Definizio-iturri gisa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua arabera).
- UNE-EN ISO 19011:2018 araua (Orientazio orokor eta definizio-iturri gisa, auditoretzak egiteko xedapenen aplikazioaren inguruko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, 2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6. artikulua arabera).

6.-PNCOCA 2026-2030.

2026-2030 Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Plan Nazionalaren (PNCOCA) 625/2017 Erregelamenduaren 109. artikuluko errequisitoriari erantzuteko egin da. Izan ere, artikuluko horrek ezartzen duenaren arabera, estatu kideek zainduko dute erregelamendu honetan araututako kontrol ofizialak agintaritza eskudunek egiten dituztela, Urte Anitzeko Kontrol Plan Nazional bat oinarri hartuta, zeinaren elaborazioa eta aplikazioa lurralde osoan koordinatuta egongo baitira. Elikakate osoan egin beharreko kontrol ofizialeko jarduerak deskribatzen dira planean, ekoizpen primariotik hasi eta azken kontsumitzailearentzako salmenta-puntuetaraino, eta, nekazaritzaren eta elikagaien kalitatearen eskumen-eremuari dagokionez, planak kontrol ofizialeko 24 programa ditu.

Euskadin, 2026-2030 aldirako PNCOCAREN kontrol ofizialeko programa nacional hauek (PNCO) aplikatu behar dira:

Arrantza eta Akuikulturaren Higiena:

- Higieneko PNCO erauzketa-arrantzaren ekoizpen primarioan.
- Higieneko PNCO akuikulturaren ekoizpen primarioan.

Nekazaritzako higieena eta landare-osasuna:

- Higieneko PNCO nekazaritzako ekoizpen primarioan eta produktu fitosanitarioen erabileran
- Produktu fitosanitarioen merkaturatzearen PNCO
- Landare-osasuneko PNCO
- Elikagaiak eta pentsuak ekoizteko genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) nahita askatzeari buruzko PNCO
- Giza kontsumorako ez diren animalia-jatorriko azpiproduktuak (SANDACH) ongarrietan erabiltzeko PNCO.

Animalien higieena, ongizatea eta osasuna:

- Abeltzaintzaren ekoizpen primarioaren higienari buruzko PNCO.
- Esne gordinaren ekoizpenaren higienari buruzko PNCO
- Animalien osasunari eta akuikulturako produktuei buruzko araudia betetzen dela egiaztatzeko PNCO
- Abeltzaintzako ustiategietan eta animalien garraioan animalien ongizateari buruzko PNCO.
- Behi, ardiak eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko PNCO.
- Abeltzaintzako espezieen ugalketa-produktuen establezimenduei buruzko PNCO.
- Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko PNCO (PNIR).
- Ungulatuak eta eskortako hegaztiak taldekatzeko operazioetarako establezimenduei buruzko PNCO.
- Itxian dauden lehorreko animaliak (primeteak izan ezik) estatu kide batetik beste estatu kide batera lekualdatzeko erabiltzen diren berrogeialdiko establezimenduetako PNCO.
- 2016/429 (EB) Erregelamenduko konfinamendu-establezimenduen PNCO.
- 2019/2035 (EB) Erregelamendu Eskuordetuaren kontrol-postuen PNCO.
- Eskortako hegaztiak inkubatzeko instalazioen eta halakoak hautatu, ugaltu eta hazteko establezimenduen PNCO, zeinetatik hegaztiak edo arrautzak garraiatzen baitira beste estatu kide batean inkubatzeko.
- Animalien elikaduraren PNCO.
- SANDACHen PNCO establezimenduetan eta SANDACH garraioa.

Elikagaien kalitatea:

- Elikagaien kalitatearen PNCO.
- Merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereiziko PNCO
- Ekoizpen ekologikoaren PNCO.

7.- EKOP 2026-2030

Euskadin, Euskadiko Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planak (EKOP 2026-2030), zeinak 2026-2030 aldirako PNCOCA baitu erreferentzia-esparru gisa, Euskal Autonomia Erkidegoan kontrol ofizialeko programak aplikatzeko sistematika orokorra eta haien berezitasunak ezartzen ditu.

7.1. Agintaritza eskudunak

2017/625 (EB) Erregelamenduaren 4.1 artikulua ezarritakoaren arabera, estatu kideek kontrol ofizialak eta beste jarduera ofizial batzuk antolatu edo egiteko ardura esleituko zaien agintaritza eskudunak izendatuko dituzte.

Estatuko Administrazio Orokorretik Euskal Autonomia Erkidegora eskumenak eskualdatzeari buruzko arauen babesean eta bere eskumenak baliatuz, EAeri dagokio 2017/625 (EB) Erregelamenduan ezarritako helburu eta kontrol ofizialen gaineko erantzukizuna bere gain hartzea, eta, zehazkiago, nekazaritzari dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailari dagokio.

Azaroaren 25eko 27/1983 Legea dela eta (Autonomia Erkidego Osorako Erakundeen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute-Erakundeen arteko harremani buruzkoa) landareen eta animalien osasunaren eta ekoizpenaren arloan dagoen eskumen-banaketa kontuan hartuta, eta nekazaritzaren arloan 4/1985, 42/1985 eta 53/1985 dekretuen bidez lurralde historikoei eskualdatutako eskumenak kontuan hartuta, nekazaritza eta abeltzaintza zerbitzuak Arabako, Bizkaiko eta Gipuzkoako foru-aldundiei eskualdatu zaizkie. Foru-zerbitzu horien eginkizunak dira, batetik, ekoizpen-bitartekoen eta ekoizpenen kalitatea kontrolatzea, eta, bestetik, animalien ekoizpena eta osasuna kontrolatzea, eta, era berean, ekoizpen-bitartekoen hobekuntzan eta kontrolean eta animalien gaixotasunen prebentzioan eta saneamenduan esku hartzen dute.

Euskadiko eskumen-sistemaren egituraketa berezia dela eta, zenbait agintaritza eskudun daude 2017/625 (EB) Erregelamendua arautzen dituen helburuak lortzeko eta kontrol ofizialak antolatzeko, gaiaren arabera.

2026-2030 EKOP barruko kontrol ofizialeko programak antolatzeko agintaritza eskudunak.

- EJ-ELGNAS: Eusko Jaurlaritza - Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Saila
- AFA-NS Arabako Foru Aldundia -Nekazaritza Saila.
- DFB-IINZS: Bizkaiko Foru Aldundia - Iraunkortasuna eta Ingurune Naturala Zaintzeko Saila
- GFA-LOBS: Gipuzkoako Foru Aldundia – Lurralde Oreka Berdearen Saila

7.2. Euskadin kontrol ofizialeko programak betearaztea.

PNCOCAk kontrol ofizialeko 24 programa nazional ditu Euskadin betearazteko

Akuikulturaren eremuari dagokionez, eta EAEn kontrol-unibertso eskasa dela eta, **2026-2030 EKOP**ean bi kontrol-programa batean integratu dira, «Akuikulturaren ekoizpen primarioan animalien osasun eta higienaren kontrol-programa ofiziala» izenekoan.

Bestalde, **2026-2030 EKOP**ean, PNCOCAren 5 kontrol-programa biltzen dituen kontrol-programa bat sortu da, zehazki, «Europar Batasunaren barruan mugimenduak egiten dituzten establezimenduen kontrol ofizial taldekatuko programa». Programa horretan, arlo hauetako kontrol-programak daude:



inkubazio-instalazioak, eskortako hegaztiak hautatzeko, ugaltzeko eta hazteko establezimenduak, berrogeialdiko establezimenduak, konfinamendu-establezimenduak, ungalatuak eta eskortako hegaztiak taldekatzeko eragiketetarako establezimenduak eta kontrol-postuak.

Beraz, Euskadin ikuskatu beharko liratekeen 24 programa nazional aplikagarriak 19 programa autonomikotan jasota daude.

Jarraian, ikuskatu beharreko kontrol ofizialeko programa autonomikoak deskribatzen dira, erreferentziako eta kudeaketako oinarriko informazioa biltzen duten fitxen sistema honetan:

ARRANTZA ETA AKUIKULTURA

<i>I.- erauzketa-arrantzaren ekoizpen primarioan higienearen kontrol ofizialeko programa</i>	
ELGNAS	Zuzendaritza: Arrantza eta akuikultura
	Zerbitzua: Arrantza-egiturak
	Kontroleko organismoa: Arrantza Ikuskapeneko Zerbitzua

<i>II.- Akuikulturaren ekoizpen primarioan animalia-osasuna eta -higienearen kontrol ofizialeko programa</i>	
ELGNAS	Zuzendaritza: Arrantza eta akuikultura
	Zerbitzua: Arrantza-egiturak
	Kontroleko organismoa: Arrantza Ikuskapeneko Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua

NEKAZARITZA

<i>III.- Nekazaritzako ekoizpen primarioaren eta produktu fitosanitarioen erabileraren higienearen gaineko kontrol ofizialeko programa</i>	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Zuzeneko laguntzak
	Kontroleko organismoa: Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontroleko organismoa: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontroleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

<i>IV.-Produktu fitosanitarioak merkaturatzeko kontrol ofizialeko programa</i>	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Zuzeneko laguntzak
	Kontroleko organismoa: Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontroleko organismoa: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza



	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrolleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

V.-Landare-osasunaren kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzuak: Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua eta Baso Zerbitzua
	Kontrolleko organismoak: Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua eta Baso Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzuak: Nekazaritza Zerbitzua eta Baso Zerbitzua
	Kontrolleko organismoak: Nekazaritza Zerbitzua eta Baso Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzuak: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua, Nekazaritza eta Abeltzaintzaren Sustapen eta Osasun Zerbitzua, eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua.
	Kontrolleko organismoak: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua eta Mendiak eta Habitatak Kudeatzeko Zerbitzua.
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrolleko organismoa: Nekazaritza Zerbitzua

VI.- Genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) elikagaiak eta pentsuak ekoizteko nahita askatzeari buruzko kontrol ofizialeko programa.	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Zuzeneko laguntzak
	Kontrolleko organismoa: Zuzeneko Laguntzen Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrolleko organismoa: Nekazaritza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontrolleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrolleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

VII.- Ongarri-produktuetan SANDACH erabiltzeko kontrol ofizialeko programa	
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Nekazaritza
	Kontrolleko organismoa: Nekazaritza Zerbitzua

ABELTZAINZA

VIII.- Abeltzaintzaren ekoizpen primarioaren higienearen kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontrolleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontrolleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.



IX.-Esne gordinaren ekoizpen primarioaren higienaren kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontroleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

X.- Abeltzaintza-ustategietan eta animalien garraioan animalia-ongizatearen kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapena eta Kontrola
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontroleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

XI.- Behiak, ardiak eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Laguntzak eta Erregistroak
	Kontroleko organismoa: Ikuskapena eta Kontrola
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontroleko organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

XII.-Abeltzaintza-espezieen ugalketa-produktuen establezimenduen kontrol ofizialeko programa	
BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontroleko organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua



ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontrolako organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

XIII.- Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko kontrol ofizialeko programa (PNIR).

BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontrolako organismoa: Ikuskapena eta Kontrola
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontrolako organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

XIV.- Europar Batasunaren barruko mugimenduak egiten dituzten establezimenduen kontrol ofizial taldekatuko programa

BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontrolako organismoa: Ikuskapena eta Kontrola
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Abeltzaintzako ekoizpena eta merkatuak
	Kontrolako organismoa: Koordinazio eta komunikazioko langileak.

XV.- Animalien elikaduraren kontrol ofizialeko programa

BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea
	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontrolako organismoa: Ikuskapena eta Kontrola Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Trazabilitatea eta Elikagaien Segurtasuna
	Kontrolako organismoa: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua

XVI.- SANDACH establezimenduetan eta garraioan kontrol ofiziala egiteko SANDACH programa

BFA	Saila: Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
BFA	Saila: Ingurune Naturala eta Nekazaritza
	Zerbitzua: Abeltzaintza
	Kontrolako organismoa: Abeltzaintza Zerbitzua
GFA	Saila: Lurralde Oreka Berdea



	Zerbitzua: Ikuskapena eta Kontrola eta Nekazaritza eta Abeltzaintzako Sustapena eta Osasuna
	Kontroleko organismoa: Ikuskapen eta Kontrol Zerbitzua
ELGNAS	Zuzendaritza: Nekazaritza eta Abeltzaintza
	Zerbitzua: Trazabilitatea eta Elikagaien Segurtasuna
	Kontroleko organismoa: Trazabilitatearen eta Elikagaien Segurtasunaren Zerbitzua

ELIKAGAIEN KALITATEA

XVII.- Elikagaien kalitatearen kontrol ofizialeko programa	
ELGNAS	Zuzendaritza: Elikagaien Kalitate eta Sustapenaren Zuzendaritza
	Zerbitzua: Kalitatearen eta Iruzuraren Kontrolaren Zerbitzua
	Kontroleko organismoa: Kalitatearen eta Iruzuraren Kontrolaren Zerbitzua

XVIII.- Merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereziaren kontrol ofizialeko programa.	
ELGNAS	Zuzendaritza: Elikagaien Kalitate eta Sustapenaren Zuzendaritza
	Zerbitzua: Kalitatearen eta Iruzuraren Kontrolaren Zerbitzua
	Kontroleko organismoa: HAZI Fundazioa

XIX.- Ekoizpen ekologikoaren kontrol ofizialeko programa	
ELGNAS	Zuzendaritza: Elikagaien Kalitate eta Sustapenaren Zuzendaritza
	Zerbitzua: Elikagaien Kalitate eta Iruzuraren Kontrolerako Zerbitzua
	Kontroleko organismoa: Euskadiko Nekazaritza eta Elikadura Ekologikoko Kontseilua (ENEK-EKOLURRA).

8.- Arriskuen analisia

2026-2030 EKOPek Euskal Autonomia Erkidegoan kontrol ofizialeko programak aplikatzeko sistematika orokorra eta haien berezitasunak ezartzen ditu

Kontrol-programen arriskua ebaluatzeko, lehenik eta behin, kontuan hartu beharreko irizpideak definitzen dira. Ondoren, irizpide horien haztapena ezartzen da, eta horren arabera kalkulatu da programa bakoitzaren arrisku-maila.

8.1. Arriskua ebaluatzeko irizpideak

Arriskua ebaluatzeko zazpi irizpide definitzen dira, eta hiru kategorian sailkatzen dira.

I.- Arriskuaren larritasuna

- A. Giza osasunari eragiten dio
- B. Animalien ongizateari eta/edo animalien edo landareen osasunari eragiten dio.
- C. Lehengaiaren/elikagaiaren kutsaduraren gaineko eragina

II. Eraginpean dagoen biztanleria

- D. Elikagaia kontsumitzen duen biztanleria
- E. Kontsumitutako elikagaiaren kantitatea

III. Sektorearen dimentsioa

- F. Sektorearen tamaina
- G. Eragindako elikagaien ekoizpena



8.2. Irizpideen haztapena

Irizpide bakoitza 1etik 5era haztatu da, taula honen arabera:

I.- Arriskuaren larritasuna

A. Giza osasunari eragiten dio	Oso larria – askotan hilgarria	5
	Larria - batzuetan hilgarria da	4
	Moderatua – medikuak normalean esku hartu behar izaten du	3
	Arina - batzuetan medikuak esku hartu behar izaten du	2
	Oso arina - medikuak oso gutxitan esku hartu behar izaten du	1

B. Animalien osasunari eta/edo ongizateari eragiten dio	Oso larria – askotan hilgarria	5
	Larria - batzuetan hilgarria da	4
	Moderatua – albaitariak esku hartu behar izaten du	3
	Arina - albaitariak batzuetan esku hartu behar izaten du	2
	Oso arina - albaitariak oso gutxitan esku hartu behar izaten du	1

C. Lehengaiaren/elikagaiaren kutsaduraren gaineko eragina	Zuzenean eragiten dio elikagaiari	5
	Zeharka eragiten dio elikagaiari	3
	Ez du eraginik elikagaian	1

II. Eraginpean dagoen biztanleria

D. Elikagaia kontsumitzen duen biztanleria	Guztiak (% 100)	5
	Gehienak (% 75)	4
	Erdia (% 50)	3
	Batzuk (% 25)	2
	Oso gutxi (% 5)	1

E. Kontsumitutako elikagaiaren kantitatea (errazioak)	200 g baino gehiago eguneko	5
	150 eta 200 g bitartean eguneko	4
	100 eta 150 g bitartean eguneko	3
	50 eta 100 g bitartean eguneko	2
	50 g baino gutxiago eguneko	1

III. Sektorearen dimentsioa

F. Sektorearen dimentsioa	Oso handia	5
	Handia	4

	Ertaina	3
	Txikia	2
	Oso txikia	1

G. Eragindako elikagaien ekoizpena	Oso handia	5
	Handia	4
	Ertaina	3
	Txikia	2
	Oso txikia	1

8.3. Arrisku-mailaren kalkulua

Ikuskatu beharreko programak aztertu ondoren, haietako bakoitzari balio bat ematen zaio irizpide bakoitzean. Ondoren, eta kontuan hartuta arriskuaren larritasuna dela garrantzitsuen, gainerako irizpideen balioaren bikoitza ematen zaio. Hala, azken kalkulua formula honen arabera egiten da:

$$\text{Arrisku-maila: } 2I + II + III = 2(A+B+C)+D+E+F+G$$

Lortutako emaitzarekin, kontrol-programak bakoitzaren arriskuaren arabera antolatzen dira, eta auditoretza-programa honen 9.3 atalean zehazten den arriskuen arabera lehentasuna lortzen da.

9.- Auditoretza-egitura

9.1. Auditoretza-sistema

EAE mailan, auditoretza-sistema horizontala eta bertikala aplikatzen da kontrol-programetarako, eta auditoretza bertikalak aurretik aipatutako arrisku-analisiaren arabera antolatzen dira.

Auditoretza-sistema horietan, agintaritza eskudunaren antolamendu- eta egitura-alderdi guztiak barne hartzen dira, bai eta zehazki teknikoak edo kontrol-jarduerekin lotura dutenak ere, agintaritza eskudunaren eta erakunde auditorearen artean adostutako irismenarekin.

Gardentasunarekin eta konfidentziasunarekin, kontrol ofizialeko zereginak eskuordetzearekin, kontroleko pertsonalarekin eta laborategi ofizialekin zerikusia duten alderdiak behin baino ez dira ikuskatuko, auditoretza-programa aplikatzeko aldiaren, auditoretza horizontalaren sistemaren bidez.

9.2. Auditoretzen irismena

Auditoretzetan aplikagarriak dira ezarritako 10 auditoretza-prozedurak, eta, haietatik, 4 auditoretza horizontalean ikuskatuko dira, eta beste 6ak auditoretza bertikalaren bidez.

Auditoretza-txostenak eskumen-eremuaren arabera dagokion agintaritza eskudun bakoitzari bidaliko zaizkio. Ondoren, laburpen-txosten bat prestatuko da, maila autonomikoan, **EKOP 2026-2030** planaren KTHren akordioz.

9.3. Auditoretzak gauzatzeko ezarritako lehentasuna

Aurretik (8. atala) zehaztutako arrisku-ebaluazioaren metodologia oinarri hartuta, arriskuaren ebaluazioa egin da, eta honako lehentasun hau ondorioztatu da, arriskuan oinarrituta:

1. Esne gordinaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa
2. Abeltzaintzaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa
3. Nekazaritzako ekoizpen primarioaren eta produktu fitosanitarioen erabileraren higiearen kontrol ofizialeko programa
4. Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko kontrol ofizialeko programa (PNIR)
5. Erauzketa-arrantzako ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa
6. Landare-osasunaren kontrol ofizialeko programa
7. Animalien elikaduraren kontrol ofizialeko programa
8. Abeltzaintza-ustiategietan eta animalien garraioan animalia-ongizatearen kontrol ofizialeko programa
9. Akuikulturaren ekoizpen primarioan animalia-osasunaren eta -higiearen kontrol ofizialeko programa
10. Europar Batasunaren barruko mugimenduak egiten dituzten establezimenduen kontrol ofizial taldekatuko programa
11. Elikagaien kalitatearen kontrol ofizialeko programa
12. Merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereziaren kontrol ofizialeko programa
13. Ekoizpen ekologikoaren kontrol ofizialeko programa
14. Behi-, ardi- eta ahuntz-azienden identifikazioaren eta erregistroaren kontrol ofizialeko programa
15. Abeltzaintza-espezieen ugalketa-produktuen establezimendu baimenduei buruzko kontrol ofizialeko programa
16. Produktu fitosanitarioak merkaturatzeko kontrol ofizialeko programa
17. Ongarri-produktuetan SANDACH erabiltzeko kontrol ofizialeko programa
18. SANDACH establezimenduetan eta garraioan kontrol ofiziala egiteko SANDACH programa
19. Genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) elikagaiak eta pentsuak ekoizteko nahita askatzeari buruzko kontrol ofizialeko programa

Era berean, 2026-2030 bosturtekorako egutegiaren proposamena egiteko, aurreko bosturtekoaren (2021-2025) EAEko kontrol ofizialeko Planean ikuskatu ez ziren programak lehenetsi dira eta, horretarako, honako alderdi zuzentzaile hau aplikatu zen:

IV. Ikuskatu gabeko programak

H. Auditoretza 2021-2025	Ikuskatu gabe	50
	2021ean ikuskatua	20
	2022an ikuskatua	15
	2023an ikuskatua	10
	2024an ikuskatua	5
	2025ean ikuskatua	0

IV. irizpidea arrisku-analisan lortutako puntuazioari gehituko zaio, honako formula hau aplikaturik:

$$\text{Auditoretzen lehenespena (egutegia): } 2I + II + III + IV = 2(A+B+C)+D+E+F+G+H$$

Beraz, azken ebaluazio horren arabera auditoretzen lehenespena honela geratzen da:

1. Animalien elikaduraren kontrol ofizialeko programa
2. Europar Batasunaren barruko mugimenduak egiten dituzten establezimenduen kontrol ofizial taldekatuko programa
3. Ekoizpen ekologikoaren kontrol ofizialeko programa
4. Abeltzaintza-espezieen ugalketa-produktuen establezimendu baimenduei buruzko kontrol ofizialeko programa
5. Abeltzaintzaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa
6. Genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) elikagaiak eta pentsuak ekoizteko nahita askatzeari buruzko kontrol ofizialeko programa
7. Erauzketa-arrantzaren ekoizpen primarioan higiearen kontrol ofizialeko programa
8. Esne gordinaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa
9. Elikagaien kalitatearen kontrol ofizialeko programa
10. Nekazaritzako ekoizpen primarioaren eta produktu fitosanitarioen erabileraren higiearen kontrol ofizialeko programa
11. Landare-osasunaren kontrol ofizialeko programa
12. Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko kontrol ofizialeko programa (PNIR)
13. Behiak, ardiak eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko kontrol ofizialeko programa
14. Merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereziaren kontrol ofizialeko programa
15. Abeltzaintza-ustategietan eta animalien garraioan animalia-ongizatearen kontrol ofizialeko programa
16. Akuikulturaren ekoizpen primarioan animalia-osasunaren eta -higiearen kontrol ofizialeko programa
17. Produktu fitosanitarioak merkaturatzeko kontrol ofizialeko programa
18. Ongarri-produktuetan SANDACH erabiltzeko kontrol ofizialeko programa
19. SANDACH establezimenduetan eta garraioan kontrol ofiziala egiteko SANDACH programa

Auditoretzak betearazteko lehen aipatutako lehenespen hori aztertu eta onetsi egin da **EKOP 2026-2030** planaren KTHren eremuan, kontrol-programa jakin batzuen egoeraren arabera egokitzeko. Koordinazio Talde Horizontala EAEn kontrol-programak aplikatzeko eta koordinatzeko eskumena duten agintaritzek eratzen dute.

10.- Auditoretzen egutegia

EKITALDIA	KONTROL-PROGRAMAK
2026	<ul style="list-style-type: none"> • Auditoretza horizontala • Animalien elikaduraren kontrol ofizialeko programa • Europar Batasunaren barruko mugimenduak egiten dituzten establezimenduen kontrol ofizial taldekatuko programa
2027	<ul style="list-style-type: none"> • Ekoizpen ekologikoaren kontrol ofizialeko programa • Abeltzaintza-espezieen ugalketa-produktuen establezimendu baimenduei buruzko kontrol ofizialeko programa • Abeltzaintzaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa • Genetikoki eraldatutako organismoak (GEO) elikagaiak eta pentsuak ekoizteko nahita askatzeari buruzko kontrol ofizialeko programa • Erauzketa-arrantzaren ekoizpen primarioan higiearen kontrol ofizialeko programa
2028	<ul style="list-style-type: none"> • Esne gordinaren ekoizpen primarioaren higiearen kontrol ofizialeko programa • Elikagaien kalitatearen kontrol ofizialeko programa • Nekazaritzako ekoizpen primarioaren eta produktu fitosanitarioen erabileraren higiearen kontrol ofizialeko programa • Landare-osasunaren kontrol ofizialeko programa
2029	<ul style="list-style-type: none"> • Albaitaritzako sendagaien eta beste substantzia batzuen hondakinak ikertzeko kontrol ofizialeko programa (PNIR) • Behiak, ardiak eta ahuntzak identifikatzeko eta erregistratzeko kontrol ofizialeko programa • Merkaturatu aurretik bermatutako jatorri geografiko eta espezialitate tradizionalei lotutako kalitate bereziaren kontrol ofizialeko programa • Abeltzaintza-ustiategietan eta animalien garraioan animalia-ongizatearen kontrol ofizialeko programa
2030	<ul style="list-style-type: none"> • Akuikulturaren ekoizpen primarioan animalia-osasunaren eta -higiearen kontrol ofizialeko programa • Produktu fitosanitarioak merkaturatzeko kontrol ofizialeko programa • Ongarri-produktuetan SANDACH erabiltzeko kontrol ofizialeko programa • SANDACH establezimenduetan eta garraioan kontrol ofiziala egiteko SANDACH programa

Auditoretza-egutegi hori berrikusi eta aldatu ahal izango da, KTHn hartutako akordioetan oinarrituta; horretarako, proposatzen diren aldaketak egitea bideragarria den egiaztatu beharko da aurretiaz erakunde ikuskatzailearekin. Bideragarritasuna egiaztatzeko, kontuan hartu beharko dira, batetik, eraginpean egon daitezkeen kontrol ofizialeko programen dimentsioa eta, bestetik, aldaketek nolako eragina duten auditoretzen bost urtez behingo egutegian.

11.- Auditoretza-prozesua eta -irizpideak

Auditoretza-programa aldi jakin batean planifikatutako auditoretza baten edo gehiagoren multzoa da, eta auditoretza horiek xede espezifiko bat dute. Bestalde, auditoretza baten oinarria prozesu sistematiko, independente eta dokumentatu batean egituratzen da, ebidentzia objektiboak lortzeko eta objektibotasunez ebaluatzeko; horrela, auditoretza-irizpideak zenbateraino betetzen diren zehazten da. Beraz, hori guztia kontuan hartuta, auditoretza-irizpideetan oinarritzen den auditoretza-prozesu bat behar da, ebidentziak lortuko dituen, ondoren ebaluazioa egiteko. Prozesu horrek zehaztuko ditu auditoretza-jardueren kudeaketa eta garapena, hasieratik amaierara. Auditoretza-irizpideak, aldi berean, erreferentzia gisa erabili diren eskakizunen multzo bat dira, eta erreferentzia horrekin alderatzen da ebidentzia objektiboa.


11.1.- UNE-EN ISO 19011 arauaren aplikazioa, segimendua eta berrikuspena

Batzordeak Komunikazioa (2021/C66/02) egin zuen, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 6. artikuluari jarraikiz auditoretzak egiteko xedapenak aplikatzeko orientazio-dokumentu bati buruzkoa, eta Komunikazioaren 4. puntuan (Oinarrizko printzipioak), orientazio orokor gisa, gomendatzen da ISO 19011 arauan xedatutakora jotzea. Arau horren bertsio eguneratuari (2018) jarraitu zaio, auditoretza-programen kudeaketari (arauaren 5. puntua) eta auditoretzak egiteari (arauaren 6. puntua) dagokienez.

Nahiz eta arauaren 5. epigrafea eratzen duten puntuak auditoretza-programa honetan garatzen joan diren, auditoretza-jardueren garapena jarraian ageri den fluxu-diagraman jasotzen da, haiek gauzatzeko prozesu oso gisa.

Prozesuaren lehen zatian, auditoretza-programa eguneratuta izateko jarraitu behar diren urratsak jasotzen dira. Haien garapena programa honen 12.2 epigrafean sartzen da.

Bestalde, auditoretza-prozesua aplikatzean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 6. artikuluari jarraikiz, auditoretzak egiteko xedapenak aplikatzeko orientazio-dokumentuari buruzko Batzordearen Komunikazioaren (2021/C66/02) 6.1, 6.2, 6.3 eta 6.4 puntuetan xedatutakoa kontuan hartuko da. Puntu horiek auditoretza planifikatzeko eta prestatzeko lanari, auditoretza egiteari, auditoretza-txostenari eta auditoretza-emaitzen segimenduari egiten diete erreferentzia.



11.2.- Betekizunak eta eskakizunak

2017/625 Erregelamenduak (EB) ezartzen ditu, II. tituluan eta VII. tituluaren zati batean, zer betekizun eta eskakizun bete behar dituzten estatu kideek pentsuen eta elikagaien, animalien osasunaren eta ongizatearen eta landare-osasunaren eta produktu fitosanitarioen inguruan kontrol ofizialak egoki egiten direla bermatzeko.

Eskakizun horiek auditoretza-ebidentzien gainean egiaztatu ahal izango dira, zenbait auditoretza-irizpideren bidez.

Eskakizunak-----Auditoretza-irizpideak -----Auditoretza-ebidentziak

Hura aplikatzeko aukera ematen duen sistema bat ezartzeko, zenbait prozedura egin dira, auditoretzako irizpideak eta helburuak deskribatzeko, 2017/625 Erregelamenduaren (EB) beraren artikuluei jarraikiz. Hala, programa hau osatzen duten auditoretzen garapenean uniformetasuna bermatzen duen sistematika bat ezarri da. Sistematika horren helburua da honako alderdi hauek egiaztatzea: batetik, kontrol ofizialak aurreikusitako xedapenekin bat etorritik egiten direla; bestetik, xedapen horiek eraginkortasunez aplikatzen direla, eta, azkenik, xedapen horiek egokiak direla kontrol ofizialen helburuak betetzeko.

11.3.- Auditoretza-prozedurak

Koadro hauetan, 2017/625 Erregelamenduan (EB) xedatutakoa aplikatuta garatu diren prozedurak aurkezten dira, haien oinarri den arau-esparrua barne:

Erreferentzia / bertsioa: PG-1/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, agintaritza eskudunetan dauden koordinazio-mekanismoak efikazak eta eraginkorrak direla egiaztatzeko.	
Helburua: Agintaritza eskudunetan dauden koordinazio-mekanismoak efikazak eta eraginkorrak direla egiaztatzea.	
<p><u>Auditoretza-irizpideak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol ofizialen koordinazio efikaza eta eraginkorra eta haien koherentzia bermatzen dituzten mekanismoak egotea. ➤ Trataturako eremuan koordinazio-arduradun bat egotea. ➤ Informazioa trukatzeko sistema bat egotea. 	<p><u>Auditoretza-ebidentziak</u></p> <ul style="list-style-type: none"> ➤ Koordinazioko esparru-dokumentuak (programak, bileren aktak...). ➤ Koordinazio-jarduerak (aktak, komunikazioak, urteko txostenak, dokumentu espezifikoak...). ➤ Arduradunaren identifikazio-ebidentziak (aktak, komunikazioak...). ➤ Informazio-sistemaren prozedura eta/edo erregistroak.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 4.2.a, 5.1.b, 131, 132, 133, 134 artikulua.	



Erreferentzia / bertsioa: PG-2/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, agintaritza eskudunak kontrol ofizialen garapenean sortutako informazioaren gardentasuna eta konfidentzialtasuna egiaztatzeko.	
Helburua: Agintaritza eskudunak kontrol ofizialen garapenean sortutako informazioaren gardentasun- eta konfidentzialtasun-eskakizunak egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Publikoari kontrol-jardueren gaineko gardentasuna bermatzea. ➤ Konfidentzialtasuneko legezko eskakizunak bermatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Zabalkunderako tresnak egotea. ➤ Argitaratutako informazioan dauden zehaztasunik ezak zuzentzen direla bermatzeko mekanismoak egotea. ➤ Lanbideko sekreturako beharra bermatzen duten tresnak.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 8. eta 11. artikulua.	

Erreferentzia / bertsioa: PG-3/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, kontrol ofizialekin zerikusia duten eginkizunak eskuordetzeko eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburua: Kontrol ofizialekin zerikusia duten eginkizunak eskuordetzeko eskakizunak egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Eskuordetzeko lege-oinarria egotea. Baliabideen arloko eskakizunak egokitzea. ➤ EEren eta/edo pertsona fisikoaren eta agintaritza eskudunaren arteko koordinazioa eraginkorra eta efikaza da, emaitzen eta arau-hausteen komunikazio-edo informazio-sistema bat barne. ➤ Kontrol-eginkizunak eskuordetzeari buruz eskatutako informazioari buruzko komunikazioa Batzordeari. ➤ Agintaritza-eskudunak EE eta/edo pertsona fisikoa ikuskatzeko sistema bat aplikatzea 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Eginkizunak eskuordetzeko dokumentua (kontratua, hitzarmena...). ➤ Kontrol-erakundearen eskumena frogatzen duten erregistroak edukitzea (ISO 17020). ➤ Konfidentzialtasun-bermea. ➤ EEren eta/edo pertsona fisikoaren eta agintaritza eskudunaren arteko koordinazio- eta komunikazio-mekanismoak eta erregistroak, emaitzen eta ez-betetzeen komunikazioa/informazioa barne. ➤ Batzordeari eginiko komunikazioen erregistroak. ➤ Ikuskapen-sistemaren prozedura. Ikuskapen-jarduerak eta erregistroak.



Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 4.4.d, 8.2, 28.1, 29., 30., 31.3, 32. eta 33. artikulua.

Erreferentzia / bertsioa: PG-4/v4.

Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, kontrolak egiteko ardura duen pertsonalaren eskakizunak egiaztatzeko.

Helburua: Kontrolak egiteko ardura duen pertsonalaren eskakizunak egiaztatzea.

Auditoretza-irizpideak

- Kontrolak egiten dituen pertsonalak ez du interes-gatazkarik.
- Baliabide material egokiak izatea, kontrolak eraginkortasunez eta efikaziaz egiteko.
- Kontrol ofizialen eraginkortasuna eta efikazia bermatzeko kualifikazio eta esperientzia egokiak dituen pertsonal nahikoa.
- Kontrol ofizialak egiteko behar diren botere juridikoak izatea.
- Kontroleko pertsonalaren prestakuntza-sistema bat izatea eta aplikatzea, 2017/625 Erregelamenduaren I. kapituluko II. eranskinaren eremuak kontuan hartuta.

Auditoretza-ebidentziak

- Kontrol ofizialak egiten dituen pertsonalak interes-gatazkarik ez duela bermatzeko prozedurak eta/edo mekanismoak.
- Lan-espazioko kokapena in situ egiaztatzea, bai eta hardwarea, softwarea, ikuskapen-material estandarra, kalibratua eta/edo homologatua ere. Homologazio/kalibrazioaren erregistroak edo beste batzuk.
- Organigrama dagoela, funtzioen deskribapena –kontrol ofizialaren eginkizunak barne–, betetzen duen postuaren eskakizunak jasotzen duen dokumentu-euskarria eta haien egiaztapena.
- Kontrolak egiteko aukera ematen duen jabetzea, izendapena edo legezko gaikuntza, edo funtzionario publikoaren baldintzaren beste ebidentzia bat.
- Prestakuntza-sistema izatea eta aplikatzea (prestakuntza-programa, prestakuntza-jardueren erregistroak...)

Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 5.1, 5.2, 5.3 eta 5.4 artikulua.



Erreferentzia / bertsioa: PG-5/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, ikuskatzeko eta egiaztatzekeo prozedurak daudela eta betetzen direla egiaztatzekeo	
Helburua: Kontrol-programa aplikatzen dela eta kontrol- eta egiaztapen-prozedura badagoela eta betetzen dela egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol ofizialeko jarduerak sektore eta prozesu guztiak barne hartzen dituzte. ➤ Kontrolak arriskuaren arabera egiten dira eta maiztasun egokia dituzte. ➤ Aldez aurreko jakinarazpenik gabeko kontrolak. ➤ Informazioa eta argibideak barne hartzen dituzten prozedura dokumentatuak edukitzea, aintzat hartzen dituztenak 2017/625 Erregelamenduaren (EB) II. eranskineko II. kapituluaren jasotako esparruak eta horien berrikuspena. 14. artikuluan zehaztutakoarekin bat datozen kontrol-tresnak. ➤ Kontrolak aztertzekeo prozedura bat edukitzea eta aplikatzea; betetzea eta eraginkortasuna egiaztatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Prozedura-eskuliburu osoa edukitzea eta aplikatzea. ➤ Espedienteak. ➤ Programa kudeatzeko sistemak: lagin-unibertsoa, datu baseak... ➤ Kontrol-tresnak. ➤ Kontrol-jarduerak egiaztatzekeo prozedura. Erregistroak: urteko txostena, neurri zuzentzaileak hartzearen ebidentziak...
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 5.1.a, 9, 10.1, 12., 14., 18 a eta 27. artikulua.	

Erreferentzia / bertsioa: PG-6/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, laginei eta analisiari buruzko eskakizunak egiaztatzekeo.	
Helburua: Laginei eta analisiari buruzko eskakizunak egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Laginketa-metodoek Batasunaren araudia beteko dute. ➤ Bigarren peritu-irizpen bat egin ahal izateko bermea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Laginketa-prozedura eta horren aplikazioa. ➤ Espedienteak.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 34.1, 34.5, 35. eta 36. artikulua.	



Erreferentzia / bertsioa: PG-7/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, laborategi ofizialek bete behar dituzten eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburua: Laborategi ofizialek bete behar dituzten eskakizunak egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Laborategi ofizialen izendapen ofiziala. Baldintzak. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Laborategi ofizialen izendapen ofiziala. ➤ ISO 17025 arauaren araberrako kontrol-programa aplikatzeko teknika ofizialen egiaztatzena hala badagokio. ➤ Zerbitzuak emateko kontratuak, izendapenik ez badago. ➤ Laborategi ofizialetako auditoretzak edo jarraipen-ebidentziak. ➤ Konfidentzialtasunaren bermea.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 8.2, 37., 38.1, 39.1, 39.2 eta 42. artikulua.	

Erreferentzia / bertsioa: PG-8/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, kontrol ofizialetako erregistro idatziak prestatzeko eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburuak: Kontrol ofizialetako erregistro ofizialak prestatzeko eskakizunak betetzen direla egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Egindako kontrol ofizialen erregistro idatziak edukitzea. Edukiari buruzko betekizunak. ➤ Operadoreari kontrol ofizialen erregistro idatzen kopia ematen zaiola bermatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontrol ofizialen erregistro idatziak. ➤ Jakinarazpenak, buletinak... ➤ ➤ Kontrolatuarekin eginiko jarduketa-prozedura.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 13.1, 13.2 eta 13.4 artikulua.	

Erreferentzia / bertsioa: PG-9/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, kontingentzia-planei dagozkien eskakizunak egiaztatzeko.	
Helburua: Kontingentzia-planei dagozkien eskakizunak egiaztatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontingentzia-plan eraginkorrak edukitzea eta aplikatzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Kontingentzia-planak. Jarduketa-kasuen erregistroak.



➤ Kontingentzia-planen eskakizunak eta haien berrikuspena.	➤ Eguneratzearen ebidentziak.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 5.1.i, 115.1, 115.2 eta 115.3 artikulua.	

Erreferentzia / bertsioa: PG-10/v4.	
Dokumentua: Auditoretzaren helburu, irizpide eta ebidentziak, arau-hausteak daudenean irizpideak betetzen direla egiaztatzeko. Zehapen-araubidea aplikatzea.	
Helburua: Arau-hausteak daudenean irizpideak betetzen direla egiaztatzea eta zehapen-araubidea aplikatzea.	
<u>Auditoretza-irizpideak</u>	<u>Auditoretza-ebidentziak</u>
<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arau-hauste kasuetarako jarduketak egotea. ➤ Zehapen-araubidea edukitzea eta aplikatzea, eta lege-eskakizunak betetzea. 	<ul style="list-style-type: none"> ➤ Arau-hausteen kasuan jarduteko prozedura. ➤ Espedienteak. ➤ Zehapen-prozedura.
Lotutako araudia: 2017/625 Erregelamenduaren (EB) 138.1, 138.2, 138.3 eta 139.1. artikulua.	

12.- Segimendua eta berrikuspena

12.1.- Azterketa independentea.

2017/625 (EB) Erregelamenduaren 6.2 artikuluekin bat etorritik, eta auditoretza-prozesua bere xedeak betetzen ari ote den egiaztatzeko, auditoretzei azterketa independentea egingo die auditoretza-organismotik eta ikuskatuko diren agintari eskudunetatik kanpoko pertsona edo erakunde batek. Pertsona edo erakunde horrek auditoretza-prozesua aztertzeko independentzia- eta ezagutza-maila nahikoa izango du.

Azterketa horrek auditoretza-prozesu osoa hartuko du barne: ikuskaritzen programazioa, plangintza eta betearazpena, txostena (onarpena barne), ekintza zuzentzaileak eta segimendua. Beraz, ez da auditoretza-erakundearen auditoretza bat bere horretan.

Auditoretza-prozesuaren eta auditoretza-erakundearen eraginkortasunaren eta independentziaren ebaluazio objektiboa eman beharko du, baita etengabe hobetzeko feedbacka ere. Halaber, auditoretza-prozesua 2017/625 (EB) Erregelamenduan ezarritako helburuak lortzen ari dela ziurtatzeko konfiantza ere eman beharko die auditoretza-erakundeari eta agintaritz eskudunen arduradunei.

Azterketa hori auditoretza-programaren indarraldia amaitu baino lehen egingo da, eta agintari eskudunek bermatu beharko dute dokumentatuta dagoela. Besteak beste, honako hauek izango ditu: erreferentziazko terminoak, zereginak eta erantzukizunak, konfidentziasuna, arau etikoak, eskubideak eta betebeharrak, txostenak eta hedapen-betebeharrak.



12.2.- Ofiziozko segimendua eta berrikuspenua.

Nahiz eta auditoretza-programaren ezarpena eta haren helburuen betetze-maila azterketa independentearen bitartez berrikusi behar diren, ikuskatu beharreko kontrolen sistemaren konplexutasuna eta urte anitzeko programa batean hainbat aldaketa gertatzeko aukera daudenez (bai indarreko aplikazio-araudian bai erreferentziazko dokumentuetan, bai eskumeneko agintaritzen egitura organikoan), beharrezkoa da agintaritze horiek etengabe segimenduak eta berrikuspenuak egitea auditoretza-programaren edukiei. Haien bitartez, edukiak baztertu, sartu edo aldatu egingo dira auditoretza-programan, baldin eta proposamenen egokitasuna eta koherentzia behar bezala egiaztatzen badira (indarraldia galtzea, aldaketak erreferentziazko planetan...).

Era berean, erakunde ikuskatzaileak, berrikuspenuak (teknikoak, egiturazkoak edo prozedurazkoak) egin ondoren, egokitze jotzen dituen aldaketak egin ahal izango dizkio auditoretza-programari, auditoretza-prozesua modu egokian betetzeko.

13.- Gardentasuna

2017/625 Erregelamenduaren (EB) 6. artikulua ezartzen du, bestalde, ikuskaritzek gardenak izan behar dutela, eta erabateko gardentasunak egon behar duela erakunde ikuskatzailearen eta ikuskatuaren artean. Bermatu egin behar da, halaber, auditoretza-prozesua gardena dela beste interesdun batzuentzat.

Agintaritze eskudunek neurri egokiak hartu beharko dituzte gardentasun hori bermatzeko, besteak beste, estatuko lege-eskakizunak kontuan hartuta.

Edonola ere, neurri horiei buruzko erabakiak hartzean, oreka bilatu behar da gardentasun-beharraren eta auditoretza-sistemaren helburuak lortzeko ahalmenari kaltea eragiteko arriskuaren artean.